

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 27/2025 FORU DEKRETUA, martxoaren 27koa, zeinaren bidez onesten baitira 2025. urtean bide-azpiegituretan berrikuntza sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia.

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak esleituta dauzka indarreko ordenamenduak Bizkaiko Foru Aldundiari errepideen eta bizikleta-bideen arloan aitortzen dizkion eskumenak: errepide eta bideak planifikatu, proiektatu, eraiki, kontserbatu, aldatu, finantzatu, erabili eta ustiatzeko eskumen eskusiboa, baina Euskal Autonomia Erkidegoak lurralde historiko bakoitzeko errepide-sare guztiak koordinatzeko dituen eskurantzak aintzat hartuta. Hori guztia honako xedapen hauetan ezarritakoaren arabera: Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.34 artikulua, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8 artikulua eta 7.a.10 artikulua eta arlo bereko gainerakoak, 1985eko martxoaren 5eko 17/1985 eta martxoaren 12ko 31/1985 foru-dekretuak (biak aurreko lege hori garatzeko eman ziren).

Iraultza teknologiko eta sozial orokor baten aurrean gaude. Teknologia berriek, batez ere digitalizazioak eta automatizazioak, joera sozial berri batzuekin batera (esaterako, ingurumen-iraunkortasunaren aldeko sentsibilitatea eta erabiltzailean oinarritzen den mugikortasun kolaboratiboa eta partekatua), eragina dute pertsonen interakzioan, joan-etorrietan eta lankidetzan.

Garraio-azpiegituren sektorean eta, zehatzago, errepideen sektorean, joera horiek mugikortasun-eredu berriak sortzen dituzte, pertsonen, ibilgailuen eta bide-azpiegituren arteko konektibitatearen garapenean oinarrituta daudenak eta ibilgailu elektrikoa eta haren banaketa-sarea bultzatuz deskarbonizazioaren aldeko soluzioak eskaintzen dituztenak. Gidatze automatizaturantz eta garraio multimodal eta partekaturantz eboluzionatzen ari gara, non autoa oinarri duen garraioaren paradigma barik erabiltzailea mugikortasun-ereduaren epizentrotzat duen beste bat nagusitzen ari den: egunez egun ari da inposatzen errealitate hori. Beraz, bide-azpiegituren kudeaketak eta bide-sarearen jarduerak horretara egokitu behar dute berehalako etorkizun batean.

Azpiarratu beharrekoa da Euskadi, administrazio publikoaren maila guztietan, apustu sendoa egiten ari dela ingurumenaren babesean eta klima-aldaketa arintzearen alde. Urban Klima 2050 proiektuak 9 jomuga eta 24 jardun-lerro definitzen ditu Euskadik klima-aldaketaaren aurka duen jarrera sendotzeko. Jomuga horietako batean, bide-azpiegituretarako jardun-lerroak eta ekintzak ezartzen dira, klima-aldaketaaren aurrean haien egokigarritasuna eta erresilientzia sustatzeko monitorizazioaren, mantentzearen eta berrikuntzaren bitartez.

Berrikuntzak ekintza-tresna estrategikoa izan behar du errealitate berri horretara egokitzeke. Katalizatzaile bat izan behar du teknologia berriek, gizarte-eredu berriek eta ingurumenaren iraunkortasunak ezarriko dituzten erronkei eraginkortasunez erantzuteke; horrek dakar Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak egiten dituen jardueren balioa maximizatzea, Bizkaiko bide azpiegituretan ia 1.300 km kudeatzen dituelako.

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak herritarrei foru-errepideen sare seguruago, modernoago eta fidagarriago bat eskaintzeko eta sare hori teknologia zein joera berrietara eta ingurumenaren iraunkortasunera egokitzeko sustatutako jarduketaren parte dira dekretu hau eta beronen helburuak.

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntzetarako ekintza bat aurreikusten du, dekretu honetan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan diruz lagunduko diren proiektuei laguntzeko. Urtero esleitzen dira horiek gauzatzeko behar diren kredituak, eta, horretarako, beha-



rezkoa da horien araudi erregulatzaileraz ezartzea. Dirulaguntza ekintza horren helburu estrategikoa «Bide-azpiegiturei aplikatutako berrikuntza sustatzea» da, eta, horren barruan, «Irabazi-asmorik gabeko enpresei eta erakundeei dirulaguntzak ematea bide-azpiegituretan berrikuntza sustatzeko» helburu espezifikoa.

Era berean, genero-ikuspegia txertatzen da foru-dekretu hau prestatzean, honako hauek betez: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena (aurrerantzean, Berdintasunerako Legearen testu bategina); 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, eta 112/2024 Foru Dekretu, BFAn generoaren arabera eraginaren aurretzeko ebaluazioa arautzen duena. Ildo horretan, foru dekretu hau izapidetzean, Generoaren arabera Eraginaren Aurretiazko Ebaluazio Txostena sartu da.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretu (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), nola Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidan (Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

Araubidea oinarri hauetan ezarrita duten dirulaguntzak salbuetsita daude Europako Batzordeari alde aurretik jakinarazteko betebeharrak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 2023/2831(EB) Erregelamenduari arabera.

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru-dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Diru-laguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

Halaber, otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzkoak, 39 k) artikuluan xedatzen duenez, foru diputatuei dagokie Bizkaiko Foru Aldundiari proposatzea, onar ditzan, bere sailaren berezko gai buruzko foru dekretuaren proiektuak. Kasu honetan, Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako foru diputatuari dagokio foru dekretu proiektu hau proposatzea.

Foru Dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea (aurrerantzean, 39/2015 Legea) aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Hori dela bide, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru-diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DA:

Artikulu Bakarra

2025eko bide-azpiegituretan berrikuntza sustatzeko dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea. Testua ondoren txertatuko da.

Bilbon, 2025eko martxoaren 27an.

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Azpiegituretarako eta Lurralde
Garapenerako foru diputatua,
CARLOS ALZAGA SAGASTASOLOA

**BIDE-AZPIEGITURETAN BERRIKUNTZA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN
OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA 2025. URTEAN (IV25)****AURKIBIDEA****I. titulua. — Xedapen orokorrak.**

1. oinarria. — *Foru Dekretuaren xedea.*
2. oinarria. — *Entitate onuradunak.*
3. oinarria. — *Diruz lagun daitekeen egitatea.*
4. oinarria. — *Laguntzen zenbatekoa.*
5. oinarria. — *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*
6. oinarria. — *Burutzeko epeak.*
7. oinarria. — *Eskabideak aurkezteko epea.*
8. oinarria. — *Zenbat eskabide gehienez.*
9. oinarria. — *Dirulaguntzak emateko prozedura.*
10. oinarria. — *Balorazio-irizpideak.*
11. oinarria. — *Aurkeztu beharreko agiriak.*
12. oinarria. — *Erakunde laguntzaileak.*
13. oinarria. — *Dirulaguntza ordaintzea.*

II. titulua. — Dirulaguntzetarako xedapen komunak.

14. oinarria. — *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuetarako irizpide orokorrak.*
15. oinarria. — *Gastuen egokitzapena.*
16. oinarria. — *Dirulaguntzak metatzea.*
17. oinarria. — *Dirulaguntzen bateragarritasuna.*
18. oinarria. — *Laguntzaren publizitatea.*
19. oinarria. — *Emandako dirulaguntzen argitalpena.*

III. titulua. — Dirulaguntzak esleitzeko prozedura.

20. oinarria. — *Eskabideak nola aurkeztu.*
21. oinarria. — *Laguntzak emateko prozedura antolatu, aztertu eta ebatziko duten organo eskudunak.*
22. oinarria. — *Espedientearen instrukzioa.*
23. oinarria. — *Eskabideen ebaluazioa.*
24. oinarria. — *Ebazpen-proposamena.*
25. oinarria. — *Aurrekontuaren muga.*
26. oinarria. — *Ebazteko epea.*
27. oinarria. — *Ebazpena.*
28. oinarria. — *Errekurtsoak.*
29. oinarria. — *Dirulaguntzaria uko egitea.*
30. oinarria. — *Jakinarazpen elektronikoa.*

**IV. titulua. — Dirulaguntzen kudeaketari eta egiaztapenari buruzko xedapen orokor-
rrak.**

31. oinarria. — *Azpikontratazioa.*
32. oinarria. — *Justifikatzeko modua.*
33. oinarria. — *Baldintzak aldatzea.*

**V. titulua. — Dirulaguntzak itzultzea.**

34. oinarria. — *Dirulaguntza erakunde onuradunak berak itzultzea.*

35. oinarria. — *Ez-betetzeak.*

36. oinarria. — *Zehapenak mailakatzeko irizpideak.*

VI. titulua. — Dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboak.

37. oinarria. — *Zehapen prozedura.*

38. oinarria. — *Deslokalizazioa.*

Xedapen Gehigarri Bakarra. — Izaera pertsonaleko datuen babesa.**Azken Xedapenak.**

Lehenengo Azken Xedapena. — *Araubide juridikoa.*

Birragen Azken Xedapena. — *Arauen garapena.*

Hirugarren Azken Xedapena. — *Aurrekontuko zuzkidura.*

Laugarren Azken Xedapena. — *Indarrean jartzea.*

I. eranskina. — Baldintza Orokorrak.

Administrazio-baldintza orokorrak.

Baldintza tekniko orokorrak.

II. eranskina. — Berriazko Baldintza Teknikoak.

Erabiltzen diren errepideetako zoru esperimentaleko geruzetarako berriazko baldintza teknikoak.

I. TITULUA**XEDAPEN OROKORRAK****1. oinarria. — Foru Dekretuaren xedea**

Oinarri arautzaile hauetako dirulaguntzen helburua da foru-errepideen sarea hobetzea eta modernizatzea, teknologia aurreratu berriak modu iraunkorrean eta ingurunean integratuan aplikatu eta probatu daitezen.

2. oinarria. — Entitate onuradunak

1. Pertsonalitate juridiko propioa duten enpresek eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteek jaso ahal izango dituzte dekretu honetan araututako dirulaguntzak.

2. Erakunde onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Gutxienez ere ekoizpen-zentro bat edo balio erantsi handiko zentro bat izatea Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta, zentro horretan, gutxienez hiru langileko plantilla izatea.

Betekizun hori ez zaie aplikatuko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteei.

Baldintza hau, pertsona-kopuruari buruzkoa, eskabidea aurkeztu den unean egiaztatutako behar da, eta ebazpena eman eta ordainketa egin arte betetzen jarraitu.

b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzearen ondoriozkoak.

c) Ez egotea Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) 42. artikuluan ezarritako egoeratariko batean.

d) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan azaltzen diren inguruabarretako batean ere.



Goiko b), c) eta d) baldintzak automatikoki egiaztatuko dira.

Baldintzok ez betetzeak berekin ekarriko du erakunde onuradunaren izaera lortzeko debekua, eta debeku horrek berau eragin duten inguruabarrek irauten duten bitartean iraungo du, 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Kasu guztietatik kanpo geratzen dira sozietate publikoak, zuzenbide publikoko erakundeak, ondasun erkidegoak eta sozietate zibilak.

4. Dirulaguntzaren bat jasotzen duten erakunde onuradunek 5/2005 Foru Arauaren 13. eta 41. artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute. Berezi, jasotako funtsak zertan erabili diren frogatzen duten agiri guztiak gorde beharko dituzte, agiri elektronikoak barne, finantza-kontrolaren eginkizunak dituzten organoen egiaztapen-jardueren eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke, eta haiei lankidetzak eskaini beharko baitiete.

5. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute; zehazki, modu aktiboan sustatu beharko dute emakumeen eta gizonen berdintasuna, eta lan-baldintza duin eta gizalegezkoak, diskriminaziorik sortzen ez dutenak, bermatu.

6. Dirulaguntzen erakunde onuradunek 2019ko maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuen 13.3 eta 13.4 artikuluetan ezarritakoa bete beharko dute; horren bidez, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira.

7. Diruz lagundutako erakundearen betebeharra izango da, halaber, diruz lagundutako proiektua garatzea eta gauzatzea eskatzen duten eragiketen ondorioz hirugarren batzuei eragindako kalte eta galera guztiak ordaintzea. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak ere parte hartuko du hirugarren izaeraz. Alde horretatik, erantzukizuna izango dute, diruz lagundutako proiektua garatzeari eta gauzatzeari buruzko esparruaren barruan, errepidean edo haren edozein elementutan kalteak eragiten dituztenek.

3. oinarria.— Diruz lagun daitekeen egitea

1. Bide-azpiegituren arloan berrikuntza-proiektuak egiteagatik emango da dirulaguntza; proiektu horiek koherente izan behar dute erakunde eskatzailearen jardura nagusiarekin, eta foru-errepideen sarean aplikagarriak izan behar dute.

2. Bizkaian kokatutako ekoizpen-zentroak egin behar ditu diruz lagunduko diren proiektuak.

Betekizun hori ez zaie aplikatuko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteei.

3. Bizkaiko foru-errepideen sarean aplikatzekoak izan beharko dute diruz laguntzen diren proiektuek, eta erakunde eskatzailearenak izango dira haien jabetza eta know-how; Bizkaiko bide-azpiegituren esparruan aplikatzen diren jardueren gastuak bakarrik izango dira diruz laguntzekoak.

4. Diruz lagunduko diren proiektuak Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak ezarritako hiru lerro nagusietako bati egokitu behar zaizkio, eta harekin koherente izan. Hona hiru ildoak:

- 4.1. ITS aurreratuak.
- 4.2. Azpiegitura adimenduna eta digitala.
- 4.3. Iraunkortasuna eta ekonomia zirkularra.

Lerro horietan, besteak beste, honako proiektu-mota hauek sartzen dira:

4.1. ITS aurreratuak

- a) Sistema kooperatiboak (C-ITS).
- b) Wifi eta/edo 5G bidezko komunikazio-probak egitea konektaturiko ibilgailuetan.
- c) Eskariaren kudeaketa: joan-etorriei buruzko erabakiak hartzea, ibilbidea aukeratzeko eta plangintza egitea.
- d) Joan-etorrien iraupenei eta ibilgailuen sorburuko/helmugako matrizeei, fluxuei eta trafikoaren egoerari buruzko datuak eta informazioa atzematea eta tratatzea.



- e) Gertaerak, intzidenteak, larrialdiak eta trafikoaren anomaliak denbora errealean detektatzea eta automatikoki erantzutea. Erabiltzaileei eta errepidearekin zerikusia duten agente zein operadoreei jakinaraztea halako egoerak.
- f) Ibilgailu astunak eta garraio bereziak kudeatzea. Jarraipena, kontrola eta monitorizazioa.
- g) Ibilgailuei buruzko datuak eta informazioa atzematea eta tratatzea denbora errealean eta historikoan.
- h) Planifikatzaile multimodalak eta mugikortasun-plataformak integratzea zerbitzu gisa.
- i) Trafikoaren kudeaketarako eta bide-segurtasunerako plataforma, mugimenduan dauden ibilgailuen datuen bidez (FCD) denbora errealean eta historikoan jasotako datuetan oinarritua.
- j) Bide-azpiegiturak diseinatzeko, eraikitzeko, erabiltzeko eta mantentzeko hodeiko zerbitzu-soluzioak.

4.2. *Azpiegitura adimenduna eta digitala*

- a) Bide-sareko sentorizazioa, monitorizazioa, automatizazioa eta segurtasuna, batez ere elementu kritikoetan (tunel, ezpona eta bidezubietan), azpiegituren jarduera aurreratua egin ahal izateko.
- b) Kontrol topografikoa –datuak hartzea eta monitorizazioa- lekuan bertan eta azpiegituran.
- c) Aktiboen inbentarioa: bide-sarearen ezaugarri geometrikoen, elementu funtzionalen eta ekipamenduaren digitalizazioa eta automatizazioa.
- d) Aforoei buruzko datuak hartzea. Intrusiboak ez diren teknologiak, datuak denbora errealean ematen dituztenak.

4.3. *Iraunkortasuna eta ekonomia zirkularra*

- a) Hondakin-materialak berrerabiltzea eta bide-zoruen geruzetan birziklatzea.
- b) Zaratarik ateratzen ez duten zoladurak.
- c) Ikuspen handiko seinale horizontalak.
- d) Azalera fotoluminiszenteak.
- e) Energia-kontsumoen eraginkortasuna eta karbono-aztarnaren murrizketa.
- f) Bide-azpiegiturak eraikitzean eta haietan jardutean ingurumen-inpaktu txikiagoa izateko neurriak.

5. Diruz lagun daitezkeen proiektuek, garatzen diren bitartean, nahitaez bete behar dituzte Bideen Berrikuntzarako Zerbitzuko langileek trafikoan, errepidean bertan eta jabari publikoa osatzen duten gainerako elementuetan izango duten eragina behar bezala arautzeko eskatzen dituzten administrazio-jarraibideak eta jarraibide teknikoak.

6. Edonola ere, proiektuek ez dute sexuan oinarritutako bereizkeriarik egingo, eta sexuaren arabera rola eta estereotipoak desagerrarazteko ahalegina egingo dute.

7. Honako proiektu hauek ez dira joko diruz laguntzeko moduko egitatetzat:

- a) Bizkaiko bide-azpiegituren esparruan aplikatzekoak ez diren proiektuak.
- b) «Funtsezko ikerketa» edo «industria-ikerketa» egiteko proiektuak, Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatzearen ondorioz (2014ko ekainaren 26an AO, L 187), zenbait laguntza-kategoria barruko merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014/EE Batzordearen Erregelamenduan jasotako definizioarekin bat (aurrerantzean, 651/2014 (EB) Erregelamendua).
- c) Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren Bizkaiko Bide Azpiegituren Berrikuntza eta Iraunkortasunerako 2024-2027ko Planaren helburuekin bat ez datozen jarduerak eta/edo ez direnak sartzen Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailari dagozkion eskumenen eremuaren barruan.

**4. oinarria. — Laguntzen zenbatekoa**

1. Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, diruz lagun daitekeen gastu bakoitzari %70eko laguntza-intentsitatea aplikatuko zaio.
2. Erakunde eskatzaile bakoitzeko eta lagundutako proiektu bakoitzeko jasotako laguntza ez da 100.000 eurotik gorakoa izango.
3. Proiektu bakoitzean, langileen barne-gastuengatik laguntzaren gehieneko zenbatekoa honako bi zenbateko hauetako txikiena baino txikiagoa izango da:
 - 25.000 euroko gehieneko muga.
 - Hirugarrenen egindako zuzeneko gastuetarako laguntzaren zenbatekoaren bikoitza.
4. Ez da 6.000 eurotik beherako dirulaguntzarik emango. Muga hori ez da aplikatuko laguntzaren azken zenbatekoa dekretu honen 16. eta 17. oinarrietan ezarritako laguntzen metaketa- eta bateragarritasun-irizpideen ondorioz egindako murrizketa baten emaitza bada, edo erabilgarri dagoen kreditua agortu delako egin den murrizketa baten ondorio bada.
5. Zerbitzuan dauden errepideetako bide-zoruen geruzetako materialetan probak egiteko proiektuetarako soilik, laguntzaren zenbatekoari 70.000 euro gehitu ahal izango zaizkio gehienez. Zenbateko horrekin, ordaindu ahalko dira deialdiaren «Baldintza Tekniko Espezifikoak Egun Erabiltzen diren Errepideetako Bide-Zoru Esperimentaleko Geruzetan» izeneko eranskinean adierazitako kalitate-kontrolaren jarraipen-saiakuntzei lotutako gastuak, bai eta lehendik dagoen bide-zorua kentzeko eta ordezkatzeko lanak ere.

5. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

1. Laguntza-programa honetan aurkeztutako proiektuen diruz laguntzeko moduko oinarria zenbatekotzeko, proiektuaren aurrekontua hartuko da kontuan. Aurrekontuak kontzeptuka desglosaturik egon behar du.
2. Zehatzago, hirugarren batzuek eginiko lanen zuzeneko gastuak (hornidurak, obrak edo zerbitzuak) diruz laguntzekoak izango dira, halako gastuek zuzeneko lotura badute proiektuarekin (diruz laguntzekoak ez diren gastuen kasuan izan ezik).
3. Aurkeztutako proiektuak iraun bitartean, proiektua burutzeko lanari dagozkion barneko pertsonal-gastuak. Kontzeptu horren barruan sartuko dira soilik soldata gordina eta gizarte kargak (Gizarte Segurantzaren) erakunde eskatzaileari eragiten dizkieten pertsonal-gastuak. Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

$$\text{G.S.K.O.} \times 12 \times 1,25$$

Urteko ordu kopurua

Non:

- i) G.S.K.O.: gertaera arruntak direla-eta langileak Gizarte Segurantzari egin beharreko hileko kotizazio-oinarria da. Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.
- ii) Urteko ordu-kopurua: langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean, urteko 1.720 ordu hartuko dira.

Diruz laguntzeko oinarria kalkulatzeko, gehienez 3 pertsona hartuko dira kontuan 3 eta 50 langile bitarteko enpresen kasuan, eta 5 pertsona gehienez 50 langile baino gehiagoko enpresen kasuan.

Nolanahi ere, ez du gaitutuko 120 orduko kopurua proiektuko eta hileko 3 eta 50 langile bitarteko enpresen kasuan, ezta ere 240 orduko kopurua proiektuko eta hileko, 50 langile baino gehiagoko enpresen kasuan.



Justifikazioan, esleipen-unean onar zitekeen gehieneko ordu-kopuru bera onartuko da, proiektuaren epeen aldaketak gorabehera.

4. Ondoko hauek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso:

- a) Hirugarren batzuek eginiko zuzeneko gastuak, 1.000 euro (BEZik gabe) baino gutxiagoko gastuen frogagiriak sortzen dituztenak. Salbuespen gisa, beste gastu batzuk onartuko dira, baldin eta haien sortzapena edo ordainketa epetan edo lotetan zatitu bada, eta adierazitako zenbatekoa baino gutxiagoko justifikazio-agiariak sortzen badituzte; horretaz gain, seriean zehar trazabilitate argia egon behar da, aukera izan dadin egiaztatzeko dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren kontzeptu berari lotutako kopurua osoa 1.000 euro edo gehiago dela.
- b) Zergak eta tasak, BEZa barne (BEZa berreskuratu ezin den kasuetan ere bai), eta kanpoan utzita jabetza industrial babesteko prozesuei lotutako tasak.
- c) Zeharkako gastuak.
- d) Proiektuaren enpresa sustatzaileen edo bazkideen arteko fakturazioa.
- e) Gastu orokor osagarriak, adibidez administrazio gastuak, dietak, kontsumo orokorrak (energia, ura, mezulariak, posta, garbiketa, telefonia, segurtasuna, bulegoko materiala...).
- f) Bidaiei, otorduen eta mantenuaren gastuak.
- g) Aktibo finkoak alokatzeko gastuak.
- h) Garraio elementuak.
- i) Lokalen pintaketa, alikatatua eta egokitzapena.
- j) Plangintzako informatikako paketeak (ERP, CRM, GMAD... motakoak).
- k) Edozein kudeaketa-sistema ezartzeko gastuak.
- l) Defentsa legalak, eta beste erakunde fisiko edo juridiko batzuek patentearen eskabideari, erabilgarritasun ereduari edo diseinuari aurkeztutako alegazioen erantzunak edo aurkakotasunak sortutako gastuak.
- m) Jabetza industrialaren bulegoetako urteko ordainketak.
- n) Beste finantza-gastu batzuk, barnean harturik komisioak edo kapital sozialari egindako ekarpenak, diruz lagun daitezkeen gastutzat jasotzen ez direnak.
- o) Bizkaiko Foru Aldundiko beste sail batzuen beste laguntza-programa, plan edo jardun-arlo batzuetan diruz lagun daitezkeen beste edozein gastu.

5. Dena dela, dekretu honen 14. oinarrian ezarritakoa beteko da. Artikulu horretan, dirulaguntza jaso dezaketen gastuetarako irizpide orokorrak adierazten dira.

6. Diruz lagun daitezkeen gastuaren balorazioa euroa ez den beste txanpon mota bat erabiliz eginez gero, fakturaren datan egingo da eurorako trukea.

7. Diruz lagun daitezkeen gastuek, 15.000 eurokoak edo handik gorakoak direnean (BEZik gabe), bakar-bakarrik jasoko dute dirulaguntza baldin eta eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioan 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikuluan aipatu bezala hiru hornitzailearen eskaintzak aurkezten badira. Dirulaguntzarako eskabidea aurkeztu aurretik egin bada gastua, dagokion kontratua edo faktura aurkeztuko da.

8. Dekretu honen 6. oinarrian ezarritako -gauzatze-epearen barruan (2025eko urtarilaren 1etik 2026ko ekainaren 30era) sortutako eta fakturatutako gastuak lagundu ahaliko dira diruz, betiere dekretu honen 11. oinarrian ezarritako justifikatzeko azken eguna baino lehen ordaintzen badira (2026ko uztailaren 31).

9. Soil-soilik zerbitzuan dauden errepideetako bide-zoruen geruzetako materialetan probak egiteko proiektuetarako, diruz laguntzeko gastutzat joko dira honako hauek: jarraipen-entseguen gastuak, eta lehendik dagoen bide-zorua kentzeko eta ordezkatzeko lanak, dirulaguntzen deialdian ezarritako epe orokorra baino luzeagoa den bitzita, jarraipen eta kontrol-aldi baterako.



10. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastuak, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira.

6. oinarria. — Burutzeko epeak

Dekretu honen babesean garatzen diren proiektuak 2025eko urtarrilaren 1etik eta 2026ko ekainaren 30era hasi eta amaitu beharko dira.

Salbuespen gisa erakunde onuradunak proiektua egiteko eta/edo justifikatzeko epea luzatzeko eskatu ahal izango du. Luzatzeko eskaera 2026ko ekainaren 1a baino lehen egin eta ebatzi beharko da.

Luzapena onesten bada, ebazpen espresu bat emango da, non proiektua egiteko eta/edo justifikatzeko epe berriak adieraziko diren. Epe horiek ez dira izango sei hila-betik gorakoak, 6. eta 11.3 oinarrietan, hurrenez hurren, proiektua egiteko eta justifikatzeko ezarritako azken egunetatik zenbatuta. Ebazpen espresorik ematen ez bada, administrazio-isiltasunak ezespen-balioa izango du.

Soil-soilik zerbitzuan dauden errepideetako bide-zoruen geruzetako materialetan probak egiteko proiektuetarako, beste epe bat egongo da, aurreko epeaz gainera, errepide-tartearen jarraipena eta baliozkotzea egiteko, bai eta bide-zorua kendu eta ordezkatzeko ere. Epe hori proiektuaren proposamenean zehaztutakoa izango da, betiere justifikatuta badago eta deialdiaren «Baldintza Tekniko Espezifikokoak Egun Erabiltzen diren Errepideetako Bide-Zoru Esperimentaleko Geruzetan» izeneko eranskinean ezarritakoa betetzen badu. Nolanahi ere, jarraipena eta baliozkotzea egiteko, eta bide-zorua kentzeko eta ordezkatzeko epea ezin da izan HIRU urte baino gehiago, 2025eko urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita.

7. oinarria. — Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean hasiko da, eta 2025eko uztailaren 4ko 14:00etan amaituko da.

8. oinarria. — Zenbat eskabide gehienez

Erakunde bakoitzak eskabide bat (1) aurkeztu ahal izango du gehienez.

Enpresa berak kopuru hori gainditzen badu, instrukzio-organoak bakarrik ebaluatuko ditu lehenik jasotako eskabideak, eta gainerako eskabideak automatikoki ezetsiko ditu.

9. oinarria. — Emateko prozedura

Lehia-konkurrentziaren arabera esleituko dira dirulaguntzak, hautaketa-prozedura bakarren bidez, hargatik eragotzi gabe aurrekontu-ekitaldian zehar dirulaguntza-programaren deialdi bat baino gehiago egiteko aukera.

Foru Dekretu honen ondorioetarako, hauxe da lehia-konkurrentzia: dirulaguntzak emateko prozesu honetan aurkeztutako eskabideak alderatu egiten dira, arlo eta atal bakoitzean ezarri diren balorazio-irizpideekin bat, haien artean hurrenkera bat ezartzeko. Horrela, deialdi honen barruan eskura daitekeen kreditua muga moduan ezarrita, baloraziorik handiena lortu duten eskabideek jasoko dute dirulaguntza.

10. oinarria. — Balorazio-irizpideak

1. Onuradun izateko baldintzak betetzen dituztela frogatzen duten enpresetatik, baloraziorik onena lortzen dutenek jasoko dituzte dirulaguntzak, aurrekontuan baliagarri dagoen mugaren barruan, honako irizpide hauen arabera eta adierazitako ponderazio edo haztapenak eginez. Irizpide bakoitzean adierazten dira ebaluaziorako aintzat hartuko diren alderdiak.



1. Berrikuntza- eta egokitzapen-maila, definitutako ildo estrategikoei dagokienez	35
1.1. Berrikuntza-maila edo aldea, gaur egunera arte foru-errepideen sarean ezarritako eskaintza teknologikoari dagokionez	15
1.2. Berrikuntza-maila edo aldea, beste errepide-sare batzuetan (naziokoa eta/edo nazioartekoa) normalizatutako eskaintza teknologikoari dagokionez	10
1.3. Proiektua bat datorren berrikuntzako ildo nagusiekin edo ildo horietan aplikagarria den (3.4. oinarria)	10
2. Proiektuaren eragina foru-errepideen sarean	20
2.1. Ezarri ondorengo eragin positiboa (konektagarritasuna, segurtasuna, digitalizazioa, ingurumena). Zenbat eta efektu positibo gehiago sortu, orduan eta puntuazio handiagoa lortuko da.	10
2.2. Proiektua ezartzearen ondoriozko eraginaren eta interferentziaren maila bide-sarearen kudeaketarako eta jarduerarako. Interferentzia zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta puntu gehiago lortuko dira.	10
3. Proiektuaren definizioa, aurkeztutako proposamenaren kalitatea, hedapenaren plangintza eta jarraipena	40
3.1. Proiektuaren heldutasuna: Errepide-sarean aplikatu eta ezarri aurreko prestakizunen eta proben egoera.	10
3.2. Proiektuaren helburuak, definizio-maila (betekizunak, eragina, baliabideak, epeak, aurrekontua, kalitatea, entregagaiak).	20
3.3. Sarean hedatzeko kudeaketa-, jarraipen- eta plangintza-prozesuak (Bideen Berrikuntzarako Zerbitzuarekin koordinatzeko sistema proiektua gauzatzeko, kontrolatzeko eta monitorizatzeko).	10
4. Enpresaren ingurumen-iraunkortasunaren, genero-berdintasunaren, euskararen sustapenaren eta gizarte-erantzukizun korporatiboaren arloko ziurtagiriak eta/edo planak.	4
5. Gizonen eta emakumeen parte-hartze orekatua proiektuan	1

2. Irizpide horiek erabiliz, instrukzio-organoak ebaluazioa egingo du, eta azken balorazioa dakarren ondorioen txostena egingo du; handik aterako da aurkeztutako proiektuen sailkapena.

3. Laguntza jasotzeko, proiektuak gutxienez 35 puntu lortu beharko ditu zenbaketa orokorrean, eta 5 puntu edo gehiago 2.2 irizpidean.

11. oinarria. — Aurkeztu beharreko agiriak

1. Foru Dekretu honen dirulaguntzei heldu nahi dieten enpresek artikuluko honetan jasotako agiriak bidali behar dizkiote Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailari:

2. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:
 - a) Eskabide telematikoa, dekretu honen 20. oinarrian ezarritakoaren arabera.
 - b) Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren web-orrian eta bulegoetan eskura daitekeen ereduaren araberrako eskabidea, behar bezala beteta eta ordezkatzeko ahalorde nahikoa duten pertsonen sinatuta.
 - c) Eskuragarri dagoen Langileen Izendun Zerrenda RNT (lehen TC2 zena) berriena. Enpresari lotutako langile autonomoak badaude, pertsona bakoitzaren azken banku-ordainagiria ere (autonomoen buletina) erantsiko du, bai eta kotizazio-oinarrien azken txostena ere, eskuragarri dagoen azken hileko kotizazioa barne.
 - d) 15.000 euro edo gehiagoko (BEZik gabe) gastuen kasuan, esleitutako kopuruak justifikatzen dituzten 3 eskaintza, kontratu edo fakturen kopia.
 - e) Eskaera egiteko unean eginda dauden gastu guztietarako fakturak eta horien banku ordainketen frogagiriak.
 - f) Indarrean dauden ziurtapenak eta/edo planak, genero ikuspegi, ingurumen, euskararen sustapen eta enpresa erantzukizun sozialekoak, bai eta erakunde publiko eskudunek emandako aintzatespenak eta diplomak ere.



- g) Hartzekodunaren fitxa, Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo dauden datuak aldatu nahi badira. Dokumentazio osoa dagoela jotzen den data zehazterakoan ez da kontuan hartuko hartzekodunaren fitxa, espedientearen ebazpena emateko ondorioetarako.

Proiektuaren balorazioa egiteko, ondokoak hartuko dira kontuan: jasotako agiriak eta proiektuan parte hartuko duten enpresako pertsonekin egindako elkarrizketan bildutako informazioa.

3. Proiektua egiten ari den bitartean eta amaitutakoan aurkeztu beharreko agiriak, eta dirulaguntza egiaztatze eta espedientearen ixteko. Justifikazioa aurkezteko azken eguna 2026ko uztailaren 31 izango da, luzapena ebazpen espresu baten bidez eman denean izan ezik. Egiaztapen-kontuaren sistemaren bidez egin beharko da dirulaguntza-ren justifikazioa, eta, horretarako, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Justifikazioaren txostena, webean eta Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Saileko bulegoetan eskuragarri dagoen ereduaren arabera, behar bezala bete eta proiektua garatzen duen entitatean nahikoa ahalmen duen pertsonak izenpetua.

Txosten horretan diruz lagundutako proiektuari egotzitako sarrera-gastuen egotzi-erria aurkeztuko da, baita jardueraren gastuen zerrenda bat ere, sailkatuta. Gastu bakoitzean, hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa data ere identifikatu behar dira.

Txotenean, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuen zerrenda xehakaturik ere aurkeztuko da, baita eskatzen den finantza-keta propioarena ere, hala badagokio.

Ereduak berdinak izango dira tarteko justifikazioetarako zein azken justifikazioetarako.

- b) Eskuragarri dagoen Langileen Izendun Zerrenda RNT (lehen TC2 zena) berriena. Enpresari lotutako langile autonomoak badaude, pertsona bakoitzaren azken banku-ordainagiria ere (autonomoen buletina) erantsiko du, bai eta kotizazio-oinarrien azken txostena ere, eskuragarri dagoen azken hileko kotizazioa barne.
- c) Legezko baldintzak betetzen dituzten gastuen fakturak. Beste herri batzuetako fakturekin batera itzulpena aurkeztu beharko da, ingelesez eginda daudenak izan ezik.
- d) Fakturen ordainketen frogagiriak. Ez da eskudiruzko ordainketarik onartuko.
- e) Laguntzaren zabalte egokia egiaztatzen duen dokumentazio grafikoa, 18. oinarrian adierazitakoaren arabera.
- f) Dirulaguntza emateko ebazpenean beren-beregi aurkezteko eskatzen dena.

Ez dira onartuko 1.000 eurotik beherako gastuak (BEZa sartu gabe) justifikatzeko agiriak, 5 oinarriaren 4 apartatuaren a) letran jasotako salbuespena izan ezik.

4. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek, dirulaguntzaren azken justifikazioaz gainera, bitarteko justifikazio bakarra aurkeztu dezakete, 2026ko martxoaren 31 baino lehen, egun hori barne.

5. Dena dela, Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailak enpresa eskatzaileari beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak eskatu ahal izateko, aurkeztutako eskabidea ondo ulertu eta ebaluatze eta beraren jarraipena egin ahal izateko. Era berean, Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailak erakunde eskatzaileari bisitak eskatu ahal izateko, proiektua egin bitartean eta amaitu ondoren, jarraipen egokia egiteko.

6. Ekonomia Sustatzeko Sailak, Bizkaiko Elkarrengarritasun Nodoaren bidez eta/edo dagozkion elkarrengarritasun-zerbitzuen bidez, aurkeztu diren eskabideen administrazio-izapideak egiteko eskatutako pertsona eta erakunde interesdunen datuak egiaztatu eta kontsultatuko ditu, 39/2015 Legearen 13., 28. eta 53. artikuluetan aitortutako eskubideei kalterik egin gabe.



Laguntza-eskaerak berekin ekarriko du beste bitarteko batzuen bidez beste administrazio publiko batzuetatik informazio egokia lortzeko baimena, baldin eta arrazoi teknikoengatik ezin bada lortu elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez.

7. Datuak zuzenean bildu edo kontsultatzeko aukera izango da aurkeztutako eska-bidearekin zerikusia duten beste izapide eta prozedura intzidental batzuetara iristeko, eskaera egitean baimendutakoaren arabera.

8. Soil-soilik zerbitzuan dauden errepideetako bide-zoruen geruzetako materiale-tan probak egiteko proiektuetarako, dokumentu bat definitu beharko da, honako hauek bilduko dituenak: seinaleztapen-proposamena; jarraipen- eta kontrol-plana (ezarpena, saiakuntzak, diagnostikoak eta espero diren emaitzak, zereginen kronograma...); koka-pen-planoak, eta jarraipen-saiakuntzen eta lehendik dagoen bide-zorua kendu eta ordezkatzeko lanen gastuen aurrekontua. Kontuan izan beharko du zer ezartzen den deialdi honetako «Baldintza Tekniko Espezifikoak Egun Erabiltzen diren Errepideetako Bide-Zoru Esperimentaleko Geruzetan» eranskinean. Dirulaguntza justifikatzeko, justifikazio-kontuaren sistema erabiliko da. Horretarako, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, oinarri honetako 3. atalean definitutakoaren antzeko forma eta edukiarekin. Justifikazio-agiriak aurkezteko epea ez da 3 urtetik gorakoa izango, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera.

12. oinarria. — Erakunde laguntzaileak

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak foru-sozietate publikoen laguntza du bere helburuak lortzeko. BEAZ, S.A.U. da sozietate horietako bat. Sozietate horrek laguntza-programaren barruan esku hartuko du, erakunde laguntzaile gisa, Bizkaiko Foru Aldundiarekin formalizatutako lankidetzat-hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

BEAZ, S.A.U.k Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren izenean eta haren kontura jardungo du, sail horrek ematen baititu, ondorio guztietarako, dekretu honetan zehazten diren laguntzak.

13. oinarria. — Dirulaguntza ordaintzea

BEAZ, S.A.U.ren bidez emango dira proiektua gauzatzeko gastuei dagozkien dirulaguntzak. Ordainketak proiektuaren gauzatze-mailaren arabera egingo dira, justifikazio partzialak jaso ondoren, 2026ko martxoaren 31 baino lehenago, edo, bestela, proiektuaren justifikazio osoa egiten denean; justifikazio hori ezingo da egin 2026ko uztailaren 31 baino geroago, salbu eta ebazpen espresu bidez luzapena eman bada. Gehienez ere bi (2) ordainketa egingo dira.

Dirulaguntzaren azken justifikazioari dagokionez, emandako zenbatekoak BEAZ, S.A.U. sozietateri aurretiaz ordainduko zaizkio, erakunde onuradunei bermerik eskatu gabe.

Erakunde onuradunei egiten zaizkien ordainketak diruz lagun daitezkeen gastutzat jotzen diren justifikatutako gastuen proportzionalak izango dira, urteko bakoitzean ematen diren kopuruak gorabehera. Kopuru hori aldi bakoitzean eman dena baino txikiagoa izan daiteke, eta, hala badagokio, egindako gastuaren proportzionala den dirulaguntza-zen azken doikuntza egin behar da.

BEAZ, S.A.U. erakunde laguntzaileari ordainketa egiteko, eta erakunde laguntzaile horrek erakunde onuradunari ordainketa egiteko, erakundeak egunean eduki beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hala ez bada, dirulaguntza itzultzeko eskatuko da, edo dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdutzat joko da, 5/2005 Foru Arauaren 38. artikuluan ezarritako prozedura aplikatuta.

II. TITULUA

DIRULAGUNTZETARAKO XEDAPEN KOMUNAK

14. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuetarako irizpide orokorrak

1. Honako hauek dira dirulaguntza jaso dezaketen gastuak: indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatu direnak, betiere epearen barruan egin badira,



beharrezkoak badira eta proiektuaren edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten badiete.

2. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuen kostuak ez dira onartuko baldin eta merkaturan duten balioa baino handiagoak badira.

3. Edonola ere, honako gastu hauek ez dute dirulaguntzarik jasoko:

- a) Dirulaguntzaren xedea den jarduerarekin inolako inola ere identifikatu ezin diren gastuak edo/eta deialdi bakoitzerako epearen barruan egiten ez direnak.
- b) Eskatzailearen eta hornitzailearen artean lotura dagoela erakusten duten gastuak. Ondorio horietarako, joko da lotura dagoela Sozietateen Gainerako Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 42.3 artikulua eta Merkataritzako Kodearen 42-49 artikuluek ezarritako kasuetan.

4. 5/2005 Foru Arauaren 29.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ondasun inbentariagarriak erosteko, eraikitzeko, zaharberritzeko edo hobetzeko kasuetan, pertsona onuradunak ondasunak dirulaguntzaren xede zehatza betetzeko bideratzeko epea hamar (10) urtekoa izango da, erregistro publikoan inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan, eta bost (5) urtekoa, gainerako ondasunen kasuan. Erregistro publikoan inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan, egoera hori aipatu egin beharko da eskrituran, bai eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere, dagokion erregistro publikoan erregistratu ere.

15. oinarria. — *Gastuen egokitzapena*

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak uste badu gastuen aurrekontua antzeko gastuen batez besteko kostuarekin alderatu eta gehiegizkoa dela, dirulaguntzaren oinarria murriztu ahal izango du, gastuentzako zenbateko egoki eta proportzionalera arte.

16. oinarria. — *Dirulaguntzak metatzea*

Foru Dekretu honetan jasotako dirulaguntzek honako erregelamendu honetan xedatutakoa bete behar dute: Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

Ematen diren dirulaguntzak de minimis laguntzat hartuko dira. Emandakotzat joko dira onuradunari dirulaguntza jasotzeko eskubide legala aitortzen zaion unean.

Pertsona onuradun batek jaso dezakeen minimis laguntzen zenbateko osoa ezin izango da 300.000,00 eurotik gorakoa izan, hasitako ekitaldi ekonomikoa eta aurreko biak hartzen dituen aldi osoan.

Ez bada betetzen Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa, horrek berekin ekar liezazkioke arau-hausleari erantzukizun penala, zibila eta administratiboa.

Foru Dekretu honen arabera emandako laguntzak beste minimis laguntza batzuekin metatu ahal izango dira, 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritako gehieneko mugaraino. Erregelamendu hori Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Emandako laguntzak ez dira metatuko Estatuaren ezein laguntzarekin, diruz lagun daitezkeen gastu bereberiei dagokienez, baldin eta metatze horrek gaintzen badu kategorien arabera salbuespen-erregelamendu batek edo Batzordeak hartutako erabaki batek kasu bakoitzaren inguruabar zehatzetan ezarritako laguntzaren intentsitatea edo zenbateko handiena.

17. oinarria. — *Dirulaguntzen bateragarritasuna*

Foru Dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten dirulaguntza, diru-sarrera edo



baliabideekin, baldin eta gastu hautagarri beretarako gehieneko laguntza-intentsitatea errespetatzen bada.

Hala ere, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiak helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

Dirulaguntzen zenbatekoak, bera bakarrik edo beste dirulaguntza nahiz laguntzekin batera, ezin izango du, inola ere, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

Aurreko muga horietakoren bat gaindituz gero, emandako edo eman beharreko dirulaguntzari soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio.

Onuradunek Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailari jakinarazi beharko diote, jakin bezain laster eta, nolanahi ere, funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskuratu dituztela, eta, hala badagokio, egin duten itzulketa-gutunaren kopia aurkeztu beharko dute. Hori guztia 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta, hala badagokio, dagokion itzulketa-prozedura hasteko.

Azpiegitura eta Lurralde Garapen Saileko organo eskuduna gainerako alderdi finantzatzaileekin harremanetan jarri ahal izango da, baterako finantzaketarako akordio batera iristeko.

18. oinarria. — Laguntzaren publizitatea

Dekretu honen itzalpean emandako laguntzen erakunde onuradunek, jasotako laguntzari publizitatea eman beharko diote, 5/2005 Foru Aginduko 17.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Proiektuaren finantzaketaren izaera publikoari buruzko publizitate egokia —euskarri informatikoetan zein bestelakoetan— egiteko, esaldi hau sartu beharko da: «Proiektu hau Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du, 2025eko Bide Azpiegiturretan Berrikuntza Planaren barruan. Este proyecto ha sido financiado por la Diputación Foral de Bizkaia dentro de la Promoción de la Innovación en Infraestructuras Viarias 2025». Beren-beregi debekatuta dago beste edozein esaldi edo irudi erabiltzea Bizkaiko Foru Aldundiari erreferentzia egiteko.

19. oinarria. — Emandako dirulaguntzak argitaratzea

Dirulaguntzak ematen diren urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa bukatu aurretik, ebazpenaren laburpen bat argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

III. TITULUA

DIRULAGUNTZAK ESLEITZEKO PROZEDURA

20. oinarria. — Eskabideak nola aurkeztu

Eskabidea, behar bezala beteta, Internet bidez aurkeztu beharko da, Sailaren bulego birtualean. Bulego birtuala Azpiegiturretarako eta Lurralde Garapenaa (bizkaia.net).

Horrela bada, eskabideak bide telematikoetatik aurkeztu behar direnez, erakunde interesdunek aldeztu aurretik sinadura elektronikoa izan beharko dute (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa. Alta prozeduraren gaineko informazioa eskuragarri dago Azpiegiturretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren web orrian.

Eskabidea aurkezteko, erakundeak alta emanda egon behar du erakunde eta pertsona fisikoen erregistroan, Bizkaiko ekonomia- eta gizarte-sarearen garapenari eta haren administrazio-prozedurei lotutako ezagutza kudeatzeko. (25/2025 Foru Dekretu, martxoaren 7koa, Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 54. zenbakia, 2025eko martxoaren 15koa). Egoera horretan ez badago, erakundeak izena emateko eskabidea bete beharko du dirulaguntzaren eskaera izapidetu aurretik.

Nolanahi ere, instrukzio-organoak elkarrekin zerikusia duten eskabideak taldekatu edo banakatu ditzake, eskabideok ondo aztertu eta ebaluatzeke eta dirulaguntzaren xe-



deko jarduerara ondoen egokitzen den egitate lagungarria zehazteko neurri egokia dela irizten badio.

Eskatzaileak, dirulaguntzarako eskabidea aurkeztean, baimena ematen dio instrukzio-organoari, onuraduna izateko baldintzen inguruabarren egiaztapena zuzenean lor dezan; hori, Dirulaguntzen Erregelamenduaren 17.1. artikuluan eta Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantzean 3/2018 Lege Organikoa) xedatutakoarekin bat etorritz, telematikako ziurtagiri egokien bidez egin daiteke.

Eskabideekin batera 11. oinarrian ezarritako agiriak aurkeztu beharko dira; arestian aipatu bulego birtualean agiriak eransteko dagoen sistema erabiliko da.

21. oinarria.—*Laguntzak emateko prozedura antolatuta, aztertu eta ebatziko duten organo eskudunak*

Honako hauek osatuko dute instrukzio-organoa: presidentea, hau da, Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusia, eta Bideen Berrikuntzarako Zerbitzuko bi teknikari; pertsona horiek, adjudikaziorako irizpideak kontuan hartuta, Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru diputatuari aurkeztuko diote ebazpen-proposamena.

Emakida-prozedura antolatzeke, izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunen osakeran, kontuan hartuko da bi sexuen ordezkaritza orekatua behar dela, eta horrek esan nahi du gutxienez biak ordezkaturik daudela, 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikuluan eta 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Batzorde hori osatzen duten pertsonak betetzen duten karguagatik badira kide, aipatutako araudian kasu horietarako jasotako salbuespena aplikatuko da.

22. oinarria.—*Espedientearen instrukzioa*

Eskabideen espedienteak honelaxe izapidetuko dira:

Instrukzioaz arduratzen den organoak ezarri diren eta pertsona edo erakunde onuradun gertatzeko ezinbestekoak diren baldintzak betetzen direla egiaztatuko du.

Eskabideak behar bezala beterik ez badaude edo deialdietan aipaturiko agiriak erantsita ez badituzte, eskabidea aurkeztu duen enpresari errekerimendua egingo dio instrukzio-organoak jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasiko den hamar (10) egun balioduneko epean akatsa konpon dezan edo behar diren agiriak aurkeztu ditzan; eta ohartaraziko zaio ezen, hori egiten ez badu, bere eskaeran atzera egiten duela, berariaz emango den ebazpenaren bitartez, 39/2015 Legearen 21. eta 68. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Nolanahi ere, instrukzio-organoak aurkeztu diren eskabideak behar bezala ulertu eta ebaluatzeke beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskabidea aurkeztu duten erakunde eskatzaileei.

23. oinarria.—*Eskabideen ebaluazioa*

Instrukzio-organoak ebaluatuko ditu eskabideak. Horretarako, entzunaldien egutegi bat ezarri ahal izango du, eskatzaileek, hala nahi badute, aukera izan dezaten programara aurkeztu dituzten proiektuak aurkezteko.

Eskabideen ebaluazioa amaituta, instrukzio-organoak ebazpen-proposamena prestatuko du; hala ere, horrek ez die proposamen horretan onuradun legez agertzen diren erakundeei inolako eskubiderik emango.

24. oinarria.—*Ebazpen proposamena*

Ebaluazioa egindakoan instrukzio-organoak egiaztatuko du eskaera egin duen pertsonak edo erakundeak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari horretarako eskaera eginda. Halaber, pertsona edo entitate eskatzailearen zerga-egoeraren egiaztagiria eskatuko dio Ogasun eta Finantza Sailari.



Behin egiaztatuta, instrukzio-organoak ebazpen-proposamena igorriko dio Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuari.

25. oinarria. — Aurrekontuaren muga

Aurreko artikuluan aipatutakoarekin bat etorritik, berariaz ezarritako aurrekontuan dauden aurrekontu-baliabideek ahalbidetzen dituzten beste eskabide hautatu ahal izango dira soilik.

26. oinarria. — Ebazteko epea

Foru Dekretu honen itzalpean aurkezten diren eskabideak ebazteko gehieneko epea sei (6) hilabetekoa izango da eskabideak deialdian aurkezteko epea amaitzen denetik.

Nahiz eta organo eskudunak eskabide guztiei buruzko ebazpen espresua eman behar duen, baldin eta ebazteko eta jakinarazteko epea amaitu bada eta aipatutako organoak ebazpena eman ez badu, ulertuko da eskabidea ezetsita dagoela administrazio-isiltasunaren ondorioz, hala xedatzen baita 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

27. oinarria. — Ebazpena

Eman eta ukatu diren dirula guntzen aipamenaz gain, norgehiagoka sistema erabiliz ebatzi diren laguntzei buruzko ebazpenak eskabideen zerrenda ordenatu bat jasoko du, honako eskabide hauek jasoko dituenak: dagokion deialdirako zegoen kredituaren gehieneko kopurua gainditu delako onartu ez direnak, nahiz eta pertsona edo erakunde onuradun izateko foru-dekretu honetan ezarritako baldintza administratiboak eta teknikoak betetzen dituzten. Horrekin batera, aurrez ikusitako balorazio-irizpideen arabera eskabide horietako bakoitzak jaso duten puntuazioa ere adieraziko da.

Foru Dekretu honetan edo deialdi bakoitzeko araudian xedatutakoa kasu bakoitzera egokitu eta aplikatzeko asmoz, komenigarritzat jotzen denean, dirulaguntza emateko ebazpenean baldintza bereziak ezarri ahalko dira, proiektuen izaera berezia delako edo gertatzen diren beste inguruabar batzuk direla eta. Halaber, onarturiko dirulaguntza emateko ebazpenean adieraziko da de minimis erregelamenduari atxikitako laguntza dela, eta esplizituki adieraziko da dirulaguntza gordin baliokidearen zenbatekoa.

Ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, 5/2005 Foru Arauaren 17. artikuluan eta, halaber, 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezartzen dena betez.

Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa betez.

Ebazpenaren jakinarazpena jaso ondoren, onuradun gertatu den pertsonak edo erakundeak hamar (10) balioduneko epea du jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita dirulaguntza onartzeko. Epe hori amaitu eta interesdunek ez badute ezer adierazi, ebazpena onartu dela ulertuko da.

Dirulaguntza ematen duen organoak dirulaguntza emateari buruzko ebazpena alda dezake, bere kabuz, interesdunari entzun eta gero eta funtsak erabili aurretik, dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzearen ondorioz lortu nahi zen interes publikoa lortzea oztopatu edo eragozten denean eta pertsona edo erakunde onuradunari kalte ekonomikorik ekartzen ez dionean.

28. oinarria. — Errekurtsoak

Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du. Haren aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko titularrari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete (1) igaro baino lehen, 39/2015 Legearen ezarritakoarekin bat etorritik.

Halaber, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen ezarritako eran. Ezin dira bi errekurtso horiek aldi berean jarri.

**29. oinarria. — Dirulaguntzari uko egitea**

Onuradun gertatu diren pertsona edo erakundeetariko batek dirulaguntzari uko egingo balio, dirulaguntza eskaintzen duen organoak zerrendan, puntuazioaren hurrenkerari jarraikiz, hurrengo dauden pertsona edo erakunde eskatzaileei emango lieke, baldin eta eskabide horiei aurre egiteko kreditu nahikorik balego.

Dirulaguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, hamar eguneko epean dirulaguntzaren proposamena onar dezaten. Epe hori, gainera, ezin izango da luzatu. Dirulaguntza eskatu duen pertsona edo erakundeek proposamena onartzen dutenean, administrazio-organoak laguntza emateko egintza ezarri eta jakinarazpenak egingo ditu.

Uko egitea aurkezteko gehieneko epea hamar (10) egun balioduneko izango da, erakunde interesdunari dirulaguntza proposamena jakinarazten zaionetik hasita. Epe hori igaro ondoren, uko egitea dirulaguntza emateko arrazoi izan diren baldintzak ez-betetzeari dela joko da.

30 oinarria. — Jakinarazpen elektronikoa

Erakunde interesdunei egindako jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Bitarteko elektronikoen bidez egiten diren jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera> egingo dira, Administrazio Elektronikoa buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekreturen arabera, eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren ekainaren 6ko 4841/2016 Foru Aginduaren arabera (foru agindu hori jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa da).

Egindako jakinarazpen elektronikoen eskuragarri jartzeari buruzko abisuak eskabidean aurkeztutako helbide elektronikora bidaliko dira. Horretarako, eskaera bete ondoren, ofizioz eskumena duen organo edo unitateak alta emango dio helbide elektronikoen horri Bizkaiko Foru Aldundiaren prozeduren katalogoko dirulaguntzen prozedura honetarako aipatutako egoitza elektronikoen abisu-sisteman. Abisu horiek ez dute, inola ere, jakinarazpen-ondorioz izango, eta horiek ez egoteak ez du eragotziko jakinarazpena guztiz baliozkotzat jotzea.

Jakinarazpenak egindakotzat joko dira edukira sartzerakoan, eta ezetsitzat jakinarazpena eskura jartzen denetik hamar egun natural igarotzen direnean edukira sartzetik gertatu ez denean.

IV. TITULUA**DIRULAGUNTZEN KUDEAKETARI
ETA EGIAZTAPENARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK****31. oinarria. — Azpikontratazioa**

Erakunde onuradun batek azpikontratazioa egin duela ulertuko da dirulaguntzaren xedea den jarduera zati batez edo osorik egitea beste norbaitekin kontratatzen duenean. Kontzeptu honetatik kanpo geratuko da pertsona edo erakunde onuradunak berak bakarrik diruz lagundutako jarduera egiteko dauzkan gastuak kontratatzea. Ondorioz, makinak, ekipamendua eta material suntsigarriak erostea, diruz lagundutako jardueraren barruan lan zehatzak egiteko kanpoko zerbitzuak kontratatzea, eta diruz laguntzen den jardueraren beste gastu osagarri batzuk egitea ez da azpikontrataziotzat joko.

Diruz laguntzen diren zerbitzu edo proiektuetako jarduerak azpikontratatu ahal izango dira, %50ean, gehienez, baldin eta 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Dirulaguntzen Erregelamenduko 53. artikuluan ezarritako baldintzak eta debekuak errespetatzen badira.

4/2005 Legea eta 4/2018 Foru Arauan xedatutakoaren arabera, azpikontratutako erakundeek lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte,



beren lanaren barruko estatistikak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu beharko dute eratzen diren batzordeetan eta lan taldeetan.

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak, dirulaguntzaren xedeko jardueraren zati baten burutzapena beste batekin hitzartzen duenean, eta jarduera horrek dirulaguntzaren zenbatekoaren %20 gainditzen duenean, eta, horrez gainera, azpikontratazioaren prezioa 60.000 eurotik gorakoa denean, erakunde onuradunak azpikontratazio hori egiteko baimena eskatu beharko dio Bizkaiko Foru Aldundiari. Horretarako, azpikontratazioaren baldintza nagusiak jakinarazi beharko dizkio, bai eta jardueraren burutzapena zein erakunderekin hitzartuko duen ere.

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuak ebatziko du eskabidea, hamabost (15) eguneko epean. Epe horretan ebazpen espresurik eman ezean ulertuko da eskabidea ezetsi egin dela.

32. oinarria. — Justifikatzeko modua

Ezarritako agiriak aurkeztuz justifikatu behar dira dirulaguntzak.

Justifikazioa Internet bidez aurkeztu behar da, atal guztiak behar bezala beteta. Horretarako, inprimaki bat dago eskuragarri Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren web-orrian, haren Bulego birtuala Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenaa (bizkaia.net).

Justifikazioa egiteko epea igarota, ez bada justifikaziorik aurkeztu instrukzio-organoaren aurrean, organoak errekerimendua egingo dio erakunde onuradunari hamabost (15) eguneko epean aurkez dezan. Epe hori ezingo da luzatu. Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkeztu, dirulaguntza itzultzeko eskatuko da, eta 5/2005 Foru Arauaren 37. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerako erantzukizunak ere eskatuko dira.

33. oinarria. — Baldintzak aldatzea

Pertsona edo erakunde onuradunak jakinarazi beharko du dirulaguntza ematean aintzat hartu ziren edozein inguruabar objektibo zein subjektiboren gaineko gertatu diren aldaketa guztiak.

Dirulaguntzaren pertsona edo erakunde onuradunak aurkeztutako justifikazioan adierazten badu ebazpena aldatzea eragin zezaketen aldaketak egon direla dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzetan (eta ez bada egin aldaketak onartzeko aurretiazko administrazio-baimenaren izapidea), dirulaguntza eman duen organoak aurkeztutako justifikazioa onartuko du, betiere hirugarrenen eskubideen kalterako ez bada; hala ere, horrek ez du salbuesten pertsona edo erakunde onuraduna maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren arabera izan ditzakeen zehapenetatik.

V. TITULUA

DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

34. oinarria. — Dirulaguntza erakunde onuradunak berak itzultzea

Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako aldeztasunirik aurretiko errekerimendurik gabe egiten duena.

Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatu dituen, 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta onuradunak itzulketa benetan egin duen unera arte.

Onuradunak berak eskatuta dirulaguntza itzultzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren araberrako ordainketa-gutuna erabili behar da; gutun hori Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren bulegoetan (Ibañez de Bilbao, 20, Bilbo) egingo da.

35. oinarria. — Ez-betetzeak

Dekretu honetan (barnean harturik «Baldintza orokorrak» eranskina eta «Baldintza tekniko espezifikoak egun erabiltzen diren errepideetako bide-zoru esperimentaleko



geruzetan» eranskina) eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritako betebeharrak edo ebazpenean ezar daitezkeen baldintzak ez betetzeak, jasotako diru-kopuruak eta, bidezko denean, haiei dagozkien legezko interesak itzuli beharra ekarriko du, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren II. eta IV. tituluetan xedaturikoaren arabera, eta bidezkoak diren legezko ekintzen eta zigorren kalterik gabe. Aipaturiko diru-kopuru horiek sarrera publikotzat joko dira ondore guztietarako.

36. oinarria. — Zehapenak mailakatzeko irizpideak

Gehiegizko finantzaketa gertatzen bada, aldi berean beste laguntza batzuk jaso direlako –5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluan jasotako balizkoa–, behar denaren gainetik jasotako kopurua itzuli beharko da, eta kopuru horri dagokion berandutze-interesa ezarriko zaio. Berdin-berdin jokatuko da de minimis baldintzak betetzen ez badira baimendutako laguntzak gainditzeagatik.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuaren gaineko ehuneko bat aplikatuta lortzen denez, behin betiko kostu osoa hasierako aurrekontua baino txikiagoa bada, honako hau itzuli behar da: hasierako aurrekontuaren gaineko ehuneko hori aplikatuta lortutako kopuruari behin betiko kostu osoa kentzearen ondoriozko finantzaketa publikoan sortutako soberakina.

Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiteak (betiere, zalantza barik egiaztatzen bada onuradunak konpromisoak betetzeko asmoa duela) dirulaguntzaren zati bat bakarrik ordaintzea ekarriko du edo, hala badagokio, dirulaguntzaren zati bat itzuli behar izatea. Itzulketa hori kalkulatzeko, jarduera osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.

Foru Dekretu honen 35. oinarriko kasuetan, pertsona edo erakunde onuradunak, hala badagokio, jaso dituen baina justifikatu ez dituen kopuruak itzuli beharko ditu, bai eta diruaren legezko interesa ere.

Administrazioak eginiko egiaztapen edo finantza-kontrol baten ondorioz ikusten bada eginiko gastu guztiak edo batzuk ordaindu gabe daudela eta hartzekodunek eskatzeko eskubidea dutela, itzulketa eskatuko da, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta. Kasu horretan, dirulaguntza jaso dezaketen egotzitako gastu guztietatik ordaindu gabeko gastuek osatzen duten proportzioaren arabera izango da dirulaguntzaren itzulketa.

VI. TITULUA

DIRULAGUNTZEN ARLOKO ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK

37. oinarria. — Zehapen-prozedura

5/2005 Foru Arauaren IV. tituluaren xedaturikoa aplikatuko da.

Aplikatu beharrekoa izango da 39/2015 Legean ezarritakoa, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Eusko Legebiltzarren otsailaren 20ko 2/1998 Legean aurreko manuari kontra egin gabe xedatzen dena.

38. oinarria. — Deslokalizazioa

Enpresa eta erakunde onuradunek enpresa deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartzen dute. Enpresa deslokalizaziotzat jotzen da Enpresak deslokalizatzen direnean foru sektore publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauak ezarritakoa. Foru Dekretu honek arautzen dituen dirula guntzei bete-betean aplikatuko zaie foru arau hori.

Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki baten bidez adieraziko da konpromiso hori noiz ez den bete, eta, horren ondorioz, itzuli egin beharko da dirulaguntza, goraxeago aipatu den foru arauan ezarritako prozedura ezarriko baita.

**XEDAPEN GEHIGARRIA****Xedapen Gehigarri Bakarra.—*Datu pertsonalen babes*a**

1. Hala bete dadin 13. artikuluan ezartzen duena 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoak, eta 11. artikuluan ezartzen duena abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzekoak, eta eskaerak eta horietatik eratorritako jarduerak kudeatzearen ondorioz, honela tratatuko dira:

- Tratamendu-jarduera: Bide-berrikuntzako ekintzen kudeaketa eta kontrola.
- Tratamenduaren arduraduna eta kontaktua: Bide Berrikuntza eta Kudeaketako Zuzendaritza Nagusia.
- Tratamenduaren helburua: Bide Berrikuntzako ekintzak kudeatzea eta kontrolatzea, foru bide-sarea hobetzeko eta modernizatzeko, teknologia aurreratu berriak aplikatzeko eta probatzeko, modu jasangarrian eta ingurunean integratuta.
- Interesdunaren eskubideak: Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko, datuak ezabatzeke, tratamendua mugatzeko eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubideak baliatu ahal izango ditu tratamenduaren arduradunaren aurrean, Informazioaren Segurtasunerako eta Datuen Babeserako Atalari zuzendutako idazki baten bidez. Idazki hori helbide honetan aurkez daiteke:
- BFaren egoitza elektronikoa: <https://www.ebizkaia.eus>
- Herritarrentzako BFaren aurrez aurreko arreta-bulegoak:
 - <https://web.bizkaia.eus/eu/erregistro-puntua>
- 39/2015 Legean ezarritako gainerako lekuak: LOPD.sustapena@bizkaia.eus
- Datuen babesari buruzko informazio gehiago:
 - <https://www.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>

1. Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENAK**Lehenengo Azken Xedapena.—*Araubide juridikoa***

Dekretu honetan aipatutako dirula guntzei dagokienez, honako hauek izango dituzte aginduzko: foru dekretu hau, ebazpena emateko foru aginduetan xedatutako baldintzak, 5/2005 Foru Arauaren xedapenak, Dirulaguntzen Erregelamendua, 87/2021 Foru Dekretu, eta Estatuko edo Europako Erkidegoko gainerako arau aplikagarriak.

Halaber, emango diren dirulaguntzak minimis laguntzak izango direnez, honako erregelamendu honetan xedatutakoa bete behar dute: Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

Horiez gainera, aplikatzekoa izango da 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikulua-ren arabera, arau horren 8, 9 eta 10 artikuluetan jasotako gardentasun eta publizitatearen inguruko betebeharrak erakunde pribatu hauei aplikatuko zaizkie: aurrekontu-ekitaldi baten zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroko edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo urteko diru-sarreraren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirula guntzetatik jasotzen dutenei, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako araudi honetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena



eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 3/2018 Lege Organikoa.

Bigarren Azken Xedapena. — Arauen garapena

Ahalmena ematen zaio Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko titularri foru-dekretu hau garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko, bai eta, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean, beste deialdi batzuk egiteko ere.

Hirugarren Azken Xedapena. — Aurrekontuko zuzkidura

Deialdi honetan eman daitezkeen dirulaguntzak —guztira 1.000.000 euro— jarraian zerrendatuko diren aurrekontu-partiden, aurrekontu-proiektuen eta urtekoen pentzutan ordainduko dira; ondoren adierazten diren gutxi gorabeherako kopuruetan banakatuko dira, eta haien muga partida bakoitzean ezarritako guztizko kopurua izango da:

Berrikuntza proiekturen gauzatze kostuentzako diru laguntzak	
Proiektu zk: 2019/0120	
1003/74300/453.115	
Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
2025	850.000,00
1003/75100/453.115	
Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
2025	150.000,00

Aurrekontuko partidei esleitutako kopuruak gutxi gorabeherakoak dira. Onartzen diren eskabideen arabera —pertsona eta erakunde onuradunen izaera juridikoak eta diruz lagundutako gastuen kontzeptuak askotarikoak izan daitezke—, aurrekontuko partidei esleitutako baliabide ekonomikoak aurrekontuko kapitulu bereko beste partiden artean egokitu ahal izango dira. Horretarako, ez da beharrezkoa izango foru-dekretu hau aldatzea, betiere partiden zenbateko osoak ezarritako muga gainditzen ez badu.

Horrez gainera, behin eskabide guztiak ebatzita ez bada iritsi aurrekontuaren gehieneko mugara, gastu-baimena deuseztatzea tramitatuko da, soberan den zenbatekoan, eta horretarako ez da beharrezkoa izango foru-dekretu hau aldatzea.

Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekreturen 43. artikuluan ezarritakoaren babesean, aurrekontu-zuzkiduren zenbateko osoari 100.000,00 euro gehitu ahal izango zaizkio, gehienez, bai eskuragarri dauden kredituak gehitu direnean —kreditu-zabalkuntza, -sorrera edo -txertatzearen ondorioz—, eta bai kopuru osagarri bat dagoenean —aurreko deialdietako eskaerak aurreikusi baino zenbateko txikiagoan ebaztearen ondorioz—. Halakoetan, kreditu osagarri hori soilik izango da eraginkorra baldin eta kreditu horren erabilgarritasuna adierazita badago. Adierazpen hori dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik egin beharko da. Gehikuntza hori eskumena duen organoak baimendu beharko du.

Laugarren Azken Xedapena. — Indarrean jartzea

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

**I. ERANSKINA****BALDINTZA OROKORRAK****Administrazio-Baldintza Orokorrak**

1. Onartu den proiektuan zehaztuta dauden lanak baino ez dira egingo. Proiektuan ez dauden jarduerak eta lanak beste baimen bat behar dute.

2. Lanak egitean proiektuaren sustatzaileak onartu den proiektuari aldaketaren bat egin nahi badio, orduan, proiektuaren exekuzioa geldiarazi beharko du, aldaketak ukitutako zatian, eta hori onartzeko eskatu. Aurkeztuko den dokumentazioak hasierako baimenean eskatutakoaren lerrun eta izaera berekoa izan beharko du.

3. Lanak hasi baino 48 ordu lehenago hasieraren berri jakinarazi beharko zaio Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritzari. Halaber, lanak bukatuta ondoko 48 orduetan interesdunak Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritzari abisatuko dio, lanak bukatu direla egiaztatzeko.

4. Lanak aurkeztu den proiektuaren arabera exekutatuko dira, hala denean, eta baimenean ezarritako epeen eta baldintzen arabera. Lanok ez dute inoiz etengo, ezta oztopatuko ere, errepidetako zirkulazioa. Horrez gainera, debekatuta dago galtzadan, arekan edo bazterbideetan materialak, nahaskinak edo obra-hondakinak uztea. Era berean, debekatuta dago zamaletarako eta lan osagarrietarako ibilgailuak aparkatzea, eta neurriak hartuko dira istripuak saiheste aldera, hain zuzen, arrisku-seinaleak eta neurri osagarriak jarriko dira, eta, behar izanez gero, zaintzaileak eta jagoleak.

5. Baimen hau araupetzen duten baldintzetako edozein ez betetzeak sail honi ahalmena emango dio hura ondorerik gabe uzteko. Gainera, zehapen-espedituek abiarazi ahal izango dira. Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritzak lanak gelditzeko agindu ahal izango du, baldin eta haien exekuzioan ikusten bada emandako baimenean desbideraketaren bat gertatu dela.

6. Errepideen eskumen-eremuaren barruan eta beharrezkoak diren gainerako lizentziak eta baimenak gorabehera, bide-berrikuntzarako diru-laguntzen dekretuan alderio iritzia esparruan onartzen da proiektua, hirugarrenari kalterik egin gabe eta lursailen edo ondasunen gainean lehendik zeuden eskubideak salbu utzita. Ez dakar, inola ere, administrazio honek jabari publikoa lagatzea edo erantzukizunik hartzea diruz lagundutako proiektuaren sustatzaileari edo hirugarrenari dagokionez.

7. Diruz laguntzen den proiektuaren sustatzaileak bere gain hartuko ditu hirugarrenei edo errepideari berari edo haren elementu funtzionalei eragiten zaizkien edo eragin dakizkiekeen kalte eta galera guztiak, diruz laguntzen den proiektuaren arabera edo horien ondorioz onartzen diren obrak edo jarduerak gauzatzen diren bitartean sortutakoak.

8. Proiektuaren sustatzaileak edo haren ordezkioak bere pentzutari berriro jarri beharko ditu lanen exekuzioak kaltetutako errepidearen elementuak, aurreko segurtasun-, funtzionaltasun- eta itxura-baldintzetara itzuliz.

9. Proiektuaren sustatzaileak edo haren ordezkioak etengabe garbitu eta ondo artatu beharko ditu baimendutako lanak, bereziki ibilgailuen bideko trafikoa edo zirkulazioaren segurtasuna ukitzen badute. Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritzak edozein unetan ikuskatu ahal du lanen artapen-egoera, eta egin behar diren konponketak adierazi. Eta sustatzaileak adierazten zaion epean exekutatu beharko ditu.

10. Baimenaren helburu diren lan edo jarduerak Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zerbitzuko langileek edo hark izendatutako beste batzuek ikuskatu ahal dituzte. Interesatuak, berriz, ematen zaizkien aginduak edo jarraibideak bete beharko dituzte. Halakoak ez betetzeak berekin ekarriko du baimena ez betetzea.

11. Diruz laguntzen den proiektuaren sustatzaileak, eskatzen zaion guztietan, eskatzen zaion informazio eta lankidetzak guztia eman beharko du, eta obrei edo jardueri buruzko informazio tekniko osagarria bildu ahal izango du, obretara sartu ahal izango da eta datu fisikoak hartu ahal izango ditu materialen kontrol geometrikoa eta kalitatezkoa egiteko, onartzen den proiektua betetzen dela eta trafikoan duen eragina egiaztatu ahal izango du, bai segurtasunari dagokionez, bai gaitasunari dagokionez.



12. Trafikoa etetea beharrezko denean, nahiz eta partzialki eta denbora laburrean eten behar izan, etete horren berri jakinarazi beharko zaie Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zerbitzuko Bideen Berrikuntzarako Zerbitzuari, gutxienez horretarako ezarritako unea heldu baino 48 ordu lehenago, eta haren gutxi gora-beherako iraupena adierazi, Bizkaiko Trafikoko Ertzaintzari jakinaraz diezaion.

13. Proiektua onartzeak ondoreak izango ditu onarpena ekarri zuen xedeak dirauen bitartean, eta eskualdatu ahalko da, Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritzari jakinarazi ostean.

14. Edozein unetan, Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritzak, ofizioz edo parteak eskatuta, proiektuaren onarpena aldi baterako edo behin betiko aldatu edo eten ahalko du, baldin eta gero onetsitako arauekin bateratu ezin bada, herri jabarian kalterik egiten badu, herri intereseko jardueretarako erabilera eragozten badu, edo foru errepideen plangintzaren ondorioz, haien zabalpenerako, hobekuntzarako edo garapenerako hori beharrezkoa bada edo bide-segurtasunean eragin txarrik badu.

Baldintza Tekniko Orokorrak

1. Beharrezko material-pilaketek ezin izango dituzte jabari publikoko eremuak okupatu, eta, salbuespenezko kasuetan eta hirigintza-plangintzako kasuetan izan ezik, zortasunekoak.

2. Lanak egiten diren bitartean, bidezorua eta gainerako errepide-zerbitzuak lokatzik eta lokatzetako hondakinik gabe eduki behar dira. Sustatzailea izango da hori ez betetzeagatik gertatu ahal diren istripuen erantzulea.

3. Lanengatik kalte egiten zaien errepideko elementuak lehengoratu egin beharko dira.

4. Behar bezala seinalizatu beharko da lanek ukitzen duten errepideko tartea, «Lan-seinaleztapena» izenburuko 8-3-IC Arauarekin bat etorririk. Arau hori 1987ko abuztuaren 31ko Ministerioaren aginduaren bitartez onetsi da. Agindu hori herritik kanpoko bideetako lan finkoen seinaliztapenari, balizajeari, defentsari, garbiketari eta bukaerari buruzkoa da (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 224. zenbakia, 1987ko irailaren 18a). Seinaleak lanaldiz kanpo kendu beharko dira, kentze horrek errepidearen erabiltzaileari arriskurik ez badakarkio. Gaueko orduetan edo ikuspen eskaseko orduetan seinaliztatzea beharrezko izanez gero, seinale argidun edo islatzaileak erabiliko dira. Seinaliztapena osorik kenduko da ez-beharrezkotzat jo eta berehala.

5. Lanak egitean, ez dira oztopatuko ez aldaraziko ibilgu naturalak ez errepidetik hurbil eroritako urak doazen eta bideratzen diren fabrikako lanak.

6. Errepidetiko zamalanak egunez burutuko dira. Ibilgailua errepidearen plataforma (gutxienez) libre utzirik ipini behar da.

7. Lanak bukatu ostean, ukitzen den errepidearen zatia lehengoratu beharra dago.

**II. ERNASKINA****ERABILTZEN DIREN ERREPIDEETAKO ZORU ESPERIMENTALEKO
GERUZETARAKO BERARIAZKO BALDINTZA TEKNIKOAK**

Proiektua ikusteko eta erabiltzaileei jakinarazteko, errepide-tartearen hasierako eta amaierako abisu-seinaleak instalatu beharko dira, hurrenez hurren honako testu hau dutenak: «Probetako errepide-tartea. Kontuz ibili. Errespetatu abiadura-muga» eta «Probetako errepide-tartearen amaiera».

Aplikazio-eremua

Baldintza teknikoen eranskin hau zoladura-geruzari dagozkion material eta obra-unitateei soilik aplikatuko zaie (zorua goiko geruza: errodadura, bitartekoa eta oinarria). Oinarritzako eta azpiko zoladurako beheko geruzak kanpoan geratzen dira, I+G+b proiektuetan behar bezala kontrolatzeko eta probatzeko behar den eragin-maila eta egikaritze-irismen handia dela-eta. Kasu horietan, egikaritzen ari diren obra-zatietan ezartzea gomendatzen da.

Errodadura-geruzarako baldintzak

Errepideen kudeaketa operatiboan zorua errodadura-geruzari ematen zaion garrantzia kontuan hartuta, erabiltzaileentzako segurtasun-ezaugarriak eta errodaduraren kalitatearen eta iraunkortasunaren arloetako ezaugarriak bete behar dira.

Zoru esperimental baten ezarpenaren jarraipena eta kontrola egiteko, ezinbestekoa da ezaugarri horietako bakoitzaren kalitate-estandarrak egiaztatzea eta horiek araugintza-balioen azpitik edo jardunbide egokiak onartutako balioen azpitik ez murriztea, erabiltzaileentzako erosotasuna barne.

Errodadura-geruza batek erabiltzaileentzat eskaintzen duen segurtasuna, neurri handi batean, gainazaleko ezaugarrien arabera da, hau da, itsaspena eta drainatzea. Kontuan hartu behar da itsaspenaren hedadura edo urtaro-aldaketa. Zoru esperimentaletan etengabeko jarraipena egin beharko da proiektuak irauten duen bitartean, proiektuaren balioak egokiak direla egiaztatze aldera.

Horregatik guztiatik, hainbat entsegu egin beharko dira urtean zehar eta diruz laguntzen den proiektuak irauten duen bitartean, gutxienez bi urtez.

Epe horretan, diruz laguntzen den proiektuaren arduradunak egin behar ditu aztertzeko ari garen errepide-tartearen beharrezko mantentze-lanak.

Eta azterketa-aldia ezarritako irismenarekin eta xedearekin amaitu ondorik, zoladura esperimentalak kendu eta errodadura arrunteko geruza bat jarri beharko da, alboko errepide-tartearen zehaztapen berekoa. Obra-harrerako saiakuntzen bidez egiaztatu beharko dira, PG3 eta Euskal Autonomia Erkidegoko Bide-zoruei buruzko Arauarekin bat etorritik, berriz jartzen den errodadura-geruzaren ezaugarriak.

Aurretiazko entseguak

Aurretiazko entseguen emaitzak egiaztatu egin beharko dira, proiektuan erabiliko diren material eta obra-unitateetarako Euskal Autonomia Erkidegoko Bide-zoruen Arauan eta PG3an ezarritik dagoenaren arabera. Emaitzen baliozkotasuna egiaztatu ondorik, aurretiazko txosten batean jasoko da, eta, horrezaz gainera, txosten horrek osagaien dosifikazio-proposamena eta diseinatu beharreko lan-formula jasoko ditu.

Jarraipen-entseguak

Honako hauek izango dira beharrezko jarraipen-entseguak:

- Ikuskapen bisuala hiru hilean behin.
- Irristadurarekiko erresistentzia. Urtean CRTren 6 entsegu egin beharko dira, 4 entsegu Griptesterrarekin (hiru hilean behin) eta 2 entsegu SCRIMekin (sei hilean behin), urtaroen bilakaera hautemateko gai izateko. Era berean, urtean bi makro-testura-entsegu egin beharko dira laser-profilometroarekin, drainatze-ahalmena



neurtze aldera, bat eguraldi lehorrean eta beste bat zenbait egunetan euri asko egin ondorik.

- Azaleraren erregularitasunaren ikuskapena hiru hilean behin (errepide-tartearen luzeraren arabera).

Oinarriko eta tarteko edozein geruzatarako beharkizunak

Baldin eta geruza esperimentala oinarri-geruza edo tarteko geruza bada, geruza horien alorrean eskatzen diren ezaugarriak ere bermatu behar dira, erosotasun-, segurtasun- eta iraunkortasun-eskakizunak betetze aldera.

Era berean, errodadura-geruzaren kasuan lehen azaldutako baldintzak aplikatuko dira.

Aurretik errodadura-geruzarako ezarritakoaz gain, azterketa-aldia amaitu ondoren, ezarritako irismenarekin eta xedearekin, zoladura esperimentala kendu beharko da, eta oinarriko eta tarteko geruza eta errodadura-geruza arrunt bat birjarri, alboko tarteen zehaztapen berberarekin. Birjartzen diren geruzen ezaugarriak obra-harrerako entseguen bidez egiaztatu beharko dira, PG3arekin eta Euskadiko Bide-zoruen Arauarekin bat etorritz.

Aurretiazko entseguak

Aurretiazko entseguen emaitzak egiaztatu egin beharko dira, proiektuan erabiliko diren material eta obra-unitateetarako Euskal Autonomia Erkidegoko Bide-zoruen Arauan eta PG3an ezarritik dagoenaren arabera. Emaitzen baliozkotasuna egiaztatu ondorik, aurretiazko txosten batean jasoko da, eta, horrezaz gainera, txosten horrek osagaien dosifikazio-proposamena eta diseinatu beharreko lan-formula jasoko ditu.

Jarraipen-entseguak

Honako hauek izango dira beharrezko jarraipen-entseguak:

- Ikuskapen bisuala hiru hilean behin.
- Irristadurarekiko erresistentzia: Euskal Autonomia Erkidegoko PG3 eta/edo Bide-zoruen Arauan errodadura geruza konbentzionalerako ezarritik dagoenaren arabera.
- Obra-harrerako entseguak egingo dira, PG3an eta/edo Euskal Autonomia Erkidegoko Bide-zoruen arauan aurreikusirik dagoenaren arabera, errepide-tarteko geruza esperimentalei edo oinarrikoei aplikatuta.
- Azaleraren erregularitasunaren ikuskapena hiru hilean behin (errepide-tartearen luzeraren arabera).

Proiektua garatu bitartean jarduteko irizpideak

Diseinu-fasean, aurreko baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da, aldez aurretik errepide-tarte esperimentala egiteko baimena emanaz gero. Horrezaz gainera, honako dokumentazio hau definitu eta entregatu beharko da:

- Egin beharreko obren deskripzio-memoria.
- Zoru esperimentalaren azterlan teknikoa eta planteatzen den soluzioaren justifikazioa.
- Planoak: eraginpeko foru errepideekiko kokapen-planoa; oinplanoko planoak neurrizko eskalan; foru errepidera sartzeko proiektua; materialak kargatu, deskargatu eta metatzeko eremuak.
- Eraikuntza-faseak eta lanen programa, fase bakoitzean jarri beharreko obra-seinaleekin (Errepideen Araua 8.3-IC eta «Obra finkoen seinaleztapenaren adibideen eskuliburua»), foru errepidearen segurtasuna eta funtzionaltasuna bermaturik gera dadin.
- Aurrekontua: jarraipen-entseguak; lehendik dagoen zorua gauzatzeko eta lehen-goratzeko lanak.



- Errepide-mozketak eta aldi baterako okupazioak: kokapen-planoa; egingo den data eta ordu-zerrenda; iraunaldian zehar izango diren seinaleak; ordezeko desbideraketen planoak.

Egikaritze-fasean, bide-segurtasuna, kontserbazio-lanak eta errepidearen ustiapena bermatzeko irizpide orokorrak bete beharko dira. Lanak egiten diren bitartean, proiektuaren xede den errepide-tartean lehendik dauden elementuak errespetatu eta erabiliko dira, hala nola, drainatze-elementuak, komunikazioak, ukitzen diren zerbitzuak, euste-hesiak, seinaleak edo proiektuaren parte ez diren beste batzuk. Kalterik gertatuz gero, sustatzailea izango da hura bere kontura birjartzearen erantzulea.

Jarraipen-fasean, adierazi diren aldietan, jarraipen-proba eta jarraipen-entseguen emaitzak jaso eta gauzatu beharko dira. Baldin eta informazioa edo emaitzetan eska daitekeen balioa aldi baterako betetzen ez bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Bide-zoruen Arauan eta/edo PG3an ezarritik dagoenaren arabera, lehendik dagoen zorua jarri beharko da zoru esperimentalaren ordezkari, eta berehala egikarituko da.